

# 2011

## Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

### Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi

- **ARGIBIDE MEMORIA**
  - Ekonomia eta Aurrekontu Politikaren inguruko orientazioak
  - Politika Publikoak
  - 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana
  - Lege-Proiektuaren Testu Artikulatuari buruzko iruzkinak
  - Erakunde-egitura eta Aurrekontu-egitura
- **MEMORIA EXPLICATIVA**
  - Orientaciones de Política Económica y Presupuestaria
  - Políticas Públicas
  - Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2015
  - Comentarios al Texto Articulado del Proyecto de Ley
  - Estructura Institucional y Estructura Presupuestaria

Gai Orokorrak  
Temática General

1

# Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la  
Comunidad Autónoma de Euskadi

2011

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA ETA OGASUN  
SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA  
Y HACIENDA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

**Argitaratzailea:** **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Edita: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Inprimaketa:** **Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografía Zerbitzua**  
Imprime: Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

**Lege gordailua:** **BI 900-1983**  
Depósito Legal:

# Argibide Memoria *Memoria Explicativa*

1 Alea  
Tomo 1

## Aurkibidea / Indice :

---

I.	EKONOMIA ETA AURREKONTU POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK .....	1
	<i>ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA</i>	
II.	POLITIKA PUBLIKOAK .....	15
	<i>POLÍTICAS PÚBLICAS</i>	
	- ADMINISTRAZIO OROKORRAREN AURREKONTUEN LABURPENAK .....	43
	<i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL</i>	
	- ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK .....	53
	<i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL Y DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS</i>	
	- BALTZU PUBLIKOEN ARLOEN (ZUZENBIDE PRIBATUPEKO ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA BALTZU PUBLIKOAK) AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK.....	59
	<i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL (ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO Y SOCIEDADES PÚBLICAS)</i>	
III.	LEGE EGITASMOAREN TESTU ARTIKULATUARI BURUZKO IRUZKINAK .....	75
	<i>COMENTARIOS AL TEXTO ARTICULADO DEL PROYECTO DE LEY</i>	
IV.	2015 ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO PLANA.....	89
	<i>PLAN DE CIENCIA, TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN 2015</i>	
V.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EGITURA INSTITUCIONALA .....	99
	<i>ESTRUCTURA INSTITUCIONAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI</i>	
	- ERAKUNDEEN ZERRENDA .....	101
	<i>RELACIÓN DE INSTITUCIONES</i>	
	- ERAKUNDE-ANTOLAKETA .....	109
	<i>ORGANIZACIÓN INSTITUCIONAL</i>	
VI.	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN AURREKONTU-EGITURAK .....	119
	<i>ESTRUCTURAS PRESUPUESTARIAS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL Y DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS</i>	
	- EGITURA ORGANIKOEN ZERRENDA.....	121
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ORGÁNICAS</i>	
	- EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: GASTUA .....	143
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-GASTO</i>	
	- EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: SARRERA .....	167
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-INGRESO</i>	
	- EGITURA FUNTZIONALEN ZERRENDA.....	187
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS FUNCIONALES</i>	





I EKONOMIA ETA AURREKONTU POLITIKAREN  
INGURUKO ORIENTAZIOAK  
*ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y  
PRESUPUESTARIA*



## EKONOMIA- ETA AURREKONTU-POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK

2011ko aurrekontu orokorrak diseinaturik daude krisitik ateratzen lagunzeko eta hiru helburu nagusi dituzte: sendotze fiskala eta, ekonomia-lehiakortasuna handitzea ekoizgarritasunaren hobekuntzan oinarriturik, hori guztia Ongizatearen Estatuaren egungo zerbitzu eta prestazioei eutsita. Lehenengo helburua lortzeko ezinbestekoa da gastuaren austerritatea 2009an hasitako ahaleginarekin batera, jarraitu eta zehazten dena 2010-2012 Berrorekatze Planean. Beste helburu biak lortzeko, ekonomia-lehiakortasun, kohesio soziala eta ingurumen jasangarritasuna batzen dituen epe ertaineko estrategia orokorri lagundu behar zaio aurrekontuetatik.

Aurrekontu zorrotzak dira, ekonomia jarduera eta emplegua bultatzeko helburuarekin, berrikuntzan eta prestakuntzan oinarritzen direnak Euskadik segi dezan gizarte jasangarria, solidaria eta lehiakorra izaten.

Fiskal sendotzearen helburuak oinarrizko zerbitzuen hazkunde eta mantentzearekin bateragariak dira. Sendotze fiskalak aurreikuspenen eta eragile pribatuen konfiantzaren hobekuntza ditu helburu. Honek ahalbidetuko ditu, alde batetik finantzazio merkeago bat kontsumoa eta inbertsioa handituko dituena eta gastu publikoaren jaitsiera orekatuko duena, hedatze eragina lortuz epe ertain eta luzean. Bitartean, aldaketarako egiturazko politikak jarri behar dira martxan Ongizatearen jasangarritasuna bermatu eta euskal ekonomiaren ekoizgarritasuna handitzeko helburuarekin, ekoizpen-sistema aldatuz ezagutza, ingurumen jasangarritasunean eta gizarteratzen oinarritzen den sistema berri baterantz. 2011ko gasto politiketako helburu hauen lorpenari egingo die mesede.

Aurrekontu honen hiru berezitasun nabarmendu behar dira hobeto ulertzeko. Lehenengoz, ez du jasotzen Enpleguaren Politika Aktiboen eskualdaketa ezta Itsasoko Gizarte Institutuarena ere, izapidezko parlamentarioaren prozesuan gehituko dena. Bestalde, gastuen partidan egindako murrizketak ez dakar zerbitzu publikoen murrizketa 3/2010 Legean ezarritako langilearen kostuen murrizketarako neurrien isla baita batez ere. Azkenik, 2010eko ekitaldian Foru Aldundiek egindako ekarpen handiagoek ahalbidetu dute 249 milioi euroko zenbatekoa duen neurri berezi batzuen multzoa onartzea, ahalbidetzen dutenak inbertsio produktiboen aurrerapena.

### 1. Ekonomia- eta aurrekontu-politika krisi ekonomikoaren garaian

## ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA

Los presupuestos generales para 2011 se han diseñado para contribuir a la salida de la crisis y persiguen tres objetivos fundamentales: la consolidación fiscal, el incremento de la competitividad económica basada en la mejora de la productividad y todo ello garantizando los servicios y prestaciones del Estado del Bienestar. Para alcanzar el primer objetivo, es ineludible la austerridad en el gasto, en línea con el esfuerzo iniciado en 2009 y que se continúa y concreta en el Plan de Reequilibrio 2010-2012. Para los otros dos objetivos, es preciso el apoyo presupuestario a una estrategia global para definir el nuevo modelo de crecimiento, basado en la competitividad económica, la cohesión social y la sostenibilidad medioambiental.

Unos presupuestos austeros, dirigidos a relanzar la actividad económica y el empleo, que ponen el acento en la innovación y la formación como resortes para seguir haciendo de Euskadi una sociedad sostenible, solidaria y competitiva.

Los objetivos de consolidación fiscal son compatibles con el crecimiento y el mantenimiento de los servicios públicos fundamentales. La consolidación fiscal tiene por objetivo la mejora de las expectativas y de la confianza de los agentes privados lo que permitirá, además de una financiación más barata, que aumente su consumo e inversión compensando la caída del gasto público y obteniendo efectos expansivos a medio y largo plazo. Mientras tanto, se deben poner en marcha políticas estructurales de reformas dirigidas a garantizar la sostenibilidad del Estado del Bienestar y a incrementar la productividad de la economía vasca, cambiando el sistema productivo hacia un nuevo modelo de crecimiento más basado en el conocimiento, la sostenibilidad medioambiental y la inclusión social. Las políticas de gasto para 2011 favorecerán la consecución de estos objetivos.

Hay que señalar tres peculiaridades de este Presupuesto para una mejor compresión del mismo. En primer lugar, contempla la transferencia de las Políticas Activas de Empleo y el Instituto Social de la Marina. Por otro lado, el recorte de las partidas de gasto no supone una disminución de los servicios públicos por ser, en buena parte, reflejo de las medidas de contención del coste de personal que se establecen en la Ley 3/2010. Por último, en el ejercicio 2010 unas mayores aportaciones de las Diputaciones Forales han posibilitado la activación de un paquete de medidas extraordinarias por importe de 249 millones de euros que permiten un adelanto de inversiones productivas.

### 1. La política económica y presupuestaria en tiempos de crisis económica

2010. udazkenaren hasieran ekonomia orokorra berreskuratze-fase ahulean dago, eta desberdina da herrialdeen arabera, bizkorrago baitoa herrialde gorakorretan garatutako herrialdeetan baino. Horrela bada, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) seihileko azken txostenak aurreikusitakoaren arabera, BPGd-ren mundu mailako hazkundea % 4,8koa izango da 2010erako eta % 4,2koa 2011rako. Herrialde gorakorrik izango dira hazkunde hori tinkoago bultzatuko dutenak, euren batezbesteko hazkundea % 7,1ekoa izango bai 2010. urtean eta % 6,4koa 2011n, eta garatutako herrialdeen hazkundea, batez beste, % 2,7koa eta % 2,2koa, hurrenez hurren.

Hasi berri den berreskurapenak, hala ere, finantza-ezegonkortasunaren mehatxua dauka oraindik. Krisiaren diagnostik argi utzi du hutsune larriak daudela finantz sistemaren gobernuan: nazioarteko gaur egungo finantza-erregulazioaren zaharkitzapena, arrisku sistemikoa duten eta erregulatuta ez zeuden (eta erregulatuta egotekotan erregulazio nahikoa ez zuten) erakundeak egotea, eta erakunde askotan pizgarri maltzurrak egotea. Horrenbestez, beste finantza-krisi bat egotea saihesteko, urratsak eman dira nazioarteko beste finantza-arkitektura bat diseinatu eta ezartzeko, finantzen erregulazio eta ikuskapenerako, bai AEBetan eta bai Europar Batasunean. Hala eta guztiz ere, hainbat oztopo aurkitu izan dira prozesuan, uste baino geldoago doa, eta hasieran ezinbestekotzat hartu ziren hainbat neurri berriro dabilta aztertzen.

Gainera, beste mehatxu bat ere sortu da: protekzionismoa. NDFk azken txostenean ohartarazi du ondorio kaltegarriak izango dituela herrialdeen artean euren dibisen kotizazioa baxu mantentzearren eta, ondorioz, kanpoko lehiakortasuna hobetu edo mantentzearren sortu den borrokak, eta elkarren segidako aldra protekzionista eragin litzatekeela, munduko ekonomiaren berreskurapena atzeratuko lukeela.

2008ko Atzeraldia Handia sortu eta garatu denetik, argi geratu da, are gehiago, ekonomia eta aurrekontu publikoak guztiz lotuta daudela, noranzko bietan. Beraz, beharrezko da aurrekontu-politikaren diseinua ondo egitea, hobeto egokitzeko ekonomia- eta gizarte-krisiaren egoerako betekizunei.

Atzeraldiaren lehenengo fasean, gobernu gehienek (G-20 buru dutela) eta nazioarteko beste erakunde batzuek zergapizgarri garantzitsuak sartu dituzte diseinu horretan, krisiari aurre egiteko, eskari pribatuaren beherakada konpentsatzeko eta ekonomia depresiora ez bidaltzeko, nahiz eta horrek defizit handiak izateko eta zor publikoa handitzeko arriskua eragin (eta arrisku hori bete egin da).

Al comienzo del otoño de 2010 la economía global se encuentra en una fase de recuperación frágil y desigual que avanza más rápido en los países emergentes que en el mundo desarrollado. Así, el último informe semestral del FMI prevé un crecimiento del PIB mundial del 4,8% para 2010 y del 4,2% para 2011, los países emergentes serán los que impulsarán con más fuerza este crecimiento con un crecimiento medio del 7,1% durante el corriente año 2010 y del 6,4% en 2011, mientras que el crecimiento de los países desarrollados por término medio será del 2,7% y del 2,2% respectivamente.

La incipiente recuperación continúa no obstante amenazada por la inestabilidad financiera. El diagnóstico de la crisis ha puesto de relieve graves lagunas en el gobierno del sistema financiero: obsolescencia de la actual regulación financiera internacional, existencia de instituciones con riesgo sistémico que no estaban reguladas, o si lo estaban, era de forma insuficiente; y la presencia extendida de incentivos perversos en muchas entidades. Consecuentemente, para prevenir una nueva crisis financiera, se han dado pasos en el diseño y en la implantación de una nueva arquitectura financiera internacional de regulación y supervisión financiera, tanto en EEUU como en la Unión Europea, aunque el proceso se encuentra con muchos obstáculos, es más lento del previsto y algunas medidas que en un primer momento se consideraron insoslayables vuelven a reconsiderarse.

Además, ha emergido una nueva amenaza: el proteccionismo. El FMI alerta en su último informe de las consecuencias negativas de la aparición de una pugna entre países por mantener baja la cotización de sus divisas y así mejorar o mantener su competitividad exterior que podría desembocar en una ola proteccionista en cadena que retrasaría la recuperación de la economía mundial.

Con la aparición y el desarrollo de la Gran Recesión de 2008 se ha hecho patente, más aún si cabe, la profunda vinculación, en ambos sentidos, entre la economía y los presupuestos públicos y, por tanto, la necesidad de acertar en el diseño de la política presupuestaria para mejor adecuarla a las exigencias de la coyuntura de crisis económica y social.

En la primera fase de la recesión, la mayoría de los gobiernos, liderados por el G 20 y otros organismos internacionales, ha introducido en ese diseño importantes estímulos fiscales para enfrentar la crisis, compensar la caída de la demanda privada y salvar a la economía de la depresión, aún a riesgo de incurrir, como así ha sido, en voluminosos déficit y en el incremento de deuda pública.

Politika horri esker gaitz handiak saihestu dira, baina beste bigarren fase bat eragin du, eta bertan ezinbestekoia izan da ekonomia- eta aurrekontu-politikaren zentzua aldatzea. 2010eko udaberrian, berreskurapen adierazgarria antzematen zenean ekonomia nagusietan, finantzamerkatuek amaitutzat eman zuten Keynesiar inspirazioko ekonomia-politika hori. Izañ ere, bat-batean agertu zen zor subiranoaren krisia izenekoa, Europar Batasuneko hainbat herrialdei eragin diena, eta pizgarriak kentzea eta hazkundea berriro motelduko duten defizita murrizteko neurriak hartzea eragin duena.

Merkatuen konfianza galtzea eta finantzaketa publiko eta pribaturako zailtasunak ekarri dituen egoera horren ondorioz, Europar Batasuneko hainbat herrialdek, besteak beste Espainiak, aldaketa gogorrak egin behar izan dituzte euren ekonomia-politikan, zerga-berrorekaren bide sinesgarria ezarri behar izan da, sendotze fiskaleko definitutako konpromisoekin, eta egitura-erreforma garrantzitsuak hartu behar izan dira merkatuen konfianza berreskuratzeko eta finantzaketa lortzeko bide normala bermatzeko.

Ekonomia-politikan egondako aldaketa horrek garrantzi berezia du Espainiaren kasuan, ekonomiaren berreskurapena nabarmen atzeratuta baitago eta astiroago egindo baita, Espainiako krisiaren berezko berezitasunaren, kanpoko finantzaketaren alorrean duen beharrizan handiaren eta duen ekoizpen-ereduaren (berreskurapena atzeratuko duten doikuntza zorrotzagoak beharko ditu) ondorioz. Ekonomia eta Ogasun Ministerioak, egin duen aurrekontu-proiektuan,  $-0,3\%$  hizkunde negatiboa aurreikusi du 2010. urterako, eta  $1,3\%$  berreskurapena 2011rako.

Euskal ekonomia txikia da, eta kanpora irekita dago. Horrela bada, nabaria da euskal ekonomiaren aukerak eta etorkizuna nazioarteko krisia ebaztearen mende daudela hein handi batean (krisiaren behin betiko amaiera oraindik urrun dagoela), bai eta Espainiako krisi bereizgarria ebaztearen mende ere, euskal ekonomiak harreman estuagoak baititu inguru horrekin, eta berreskurapen hori are gehiago luzatuko da. Baino gure ekonomiaren jardueran eta BPGd-ren, langabeziaren eta gizarte-kohesioaren inguruan dituen emaitzak, berezko faktoreen mende eta geure ekonomia- eta aurrekontu-politikaren egokitasunaren mende ere badaude, egoera zail horri egokitu eta horretarako erantzunak bilatu behar baititu, inguruan ditugun eta geuri ere eragiten diguten Espainiako eta Europako egoerekin bat eginez.

## **2. Euskal ekonomia 2010ean eta 2011rako aurreikuspenak**

Esta política ha conseguido evitar grandes males pero ha conducido a una segunda fase, en la que ha sido preciso cambiar el sentido de la política económica y presupuestaria. En la primavera de 2010, cuando se atisaba una significativa recuperación en las principales economías, los mercados financieros han puesto fin a esta política económica de inspiración keynesiana, con la irrupción de lo que se ha llamado crisis de la deuda soberana que ha afectado a distintos países de la UE, y que ha obligado a la retirada de los estímulos y a la adopción de medidas de recorte del déficit que ralentizarán de nuevo el crecimiento.

Esta situación, de pérdida de confianza de los mercados y las consiguientes dificultades de financiación pública y privada, ha obligado a varios países de la Unión Europea, entre ellos a España, a cambios drásticos en su política económica, al establecimiento de una senda de reequilibrio fiscal creíble con compromisos definidos de consolidación fiscal y a la adopción de importantes reformas estructurales para recuperar la confianza de los mercados y asegurar el normal acceso a la financiación.

Este giro en la política económica alcanza especial relevancia en el caso de España donde la recuperación de la economía se encuentra sensiblemente más retrasada y será más lenta debido a la especificidad propia de la crisis española, a su elevada necesidad de financiación exterior y a su modelo productivo que requiere de ajustes más severos que atrasarán esa recuperación. El Ministerio de Economía y Hacienda en su proyecto de presupuestos prevé un crecimiento negativo del  $-0,3\%$  durante el año corriente 2010 y una recuperación del  $1,3\%$  para 2011.

Es obvio que las perspectivas y el futuro de la economía vasca, economía pequeña y abierta al exterior, dependen en gran medida de la resolución de la crisis internacional, cuyo final definitivo no se ve aún próximo y depende también de la resolución de la crisis diferencial española, entorno con el que la economía vasca mantiene más estrechas relaciones, y que se dilatará aún más en el tiempo. Pero el desempeño de nuestra economía y sus resultados en términos de PIB, de paro y de cohesión social dependen también de factores propios y de la idoneidad de nuestra propia política económica y presupuestaria que deben adecuarse y responder a esa difícil situación alineándose con las de nuestro entorno español y europeo del que formamos parte.

## **2. La economía vasca en 2010 y previsiones para 2011**

2010eko bigarren hiruhilekoan, sei hiruhilabetekotan urte arteko beherakadak izan ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGd-ak %0,5eko hazkundea erregistratu zuen berriro, eta beste fase bat hasi zen horrela: Krisitik irten eta jarduera berreskuratzeko fasea. Hiruhileko BPGd-ren hazkundeak erkatuz gero, argi ikus daiteke krisia aldi berean gertatzen dela Europar Batasunean, Espanian eta EAEn, eta antzeko sakontasuna duela hiruretan. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen berreskurapenarekin, ez eta duen bizitasunarekin ere: Europako ekonomiak 2010eko lehenengo hiruhilekoan erregistratu zuen urte arteko lehenengo tasa positiboa, eta erritmoa biziagotuz doa, bigarren hiruhilekoan %2,0 eskuratu arte (Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratutako hazkundeak baino puntu bat eta erdi gehiago). Aldiz, hiruhileko horretan, Espaniako ekonomia atzeraldian zegoen oraindik (-%0,1). Egiaztatu egin da aurreko hamarkadan gertatu zenaren alderantzizkoa gertatu dela oraingoan, Europako hazkundeak EAeko eta Espaniako ekonomien emaitzak gainditzen baititu orain.

Erakunde-maila guztietan hartu diren pizgarri-neurriei esker lortu ahal izan da euskal ekonomiaren aipatutako bilakaera positiboa, baina Espaniako ekonomiarekin alderatuta duen bereizgarri positiboa egituraren beraren eta bertako ekoizpen-ereduaren ondoriozkoa da, industriak eta enpresetarako zerbitzueta sektoreak garrantzi handiagoa baitu eta, ondorioz, probetxu handiagoa eskuratu ahal izan baitu nazioarteko merkataritzaren berreskuratzetik.

Honakoak izan dira euskal ekonomiaren hazkundearen oinarriak: barne eskaria hobetu izana (ekarpena ez da aurreko hiruhilekoetako bezain negatiboa) eta ekarpenean positiboa egin izana kanpo eskariaren BPGd-ri (nabarmentzekoa dela nazioarteko merkataritzarekin lotuta dagoen atzerrira egindako esportazioen hazkunde handia). Eskaintzari dagokionez, nabarmentzekoa da industriaren eta zerbitzueta sektorearen berreskurapena, ziurrenik enpresetarako zerbitzueta sektorearen eraginez.

Krisiak, bataz besteko langabezia tasa %9ra arte igo du, Europakoaren antzera. Azkeneko urtean krisiaren hasierako uneetan galduetako 40.000 baino gehiagoko empleguetatik 12.000 enplegu berreskuratu ditugu. Urte honetan suertatzen ari den berreskurapenak, enpleguaren beherakada geldiaraztea lortu du, azken inkestetan eta gizarte-segurantzako afiliazio-datueta ikus daitekeen bezala. Baino behin betiko finkatuta dagoela esan ahal izateko, ezinbestekoia izango da enplegu sortzen hastea eta krisiaren aurreko langabezia-tasak berreskuratzeko joera hartzea.

En el segundo trimestre de 2010, tras seis trimestres de caídas interanuales, el PIB del País Vasco volvió a registrar un crecimiento del 0,5% con el que se inicia una nueva fase: la de salida de la crisis y recuperación de la actividad. La observación comparativa de los incrementos del PIB trimestral, muestran que la crisis se produce de forma sincrónica en la UE, España y en la CAPV y es de una profundidad similar, pero no así el momento en el que arranca la recuperación ni su intensidad: la economía europea registra su primera tasa interanual positiva durante el primer trimestre de 2010 e intensifica su ritmo hasta alcanzar un 2,0% durante el segundo, punto y medio superior al crecimiento registrado en el País Vasco, mientras que la economía española continua aún en recesión (-0,1%) durante ese trimestre. Se constata que, a la inversa de lo que ocurría en la década anterior, el ritmo de crecimiento europeo supera ahora a los resultados de la economía vasca y española.

Las medidas de estímulo que se han adoptado en todos los niveles institucionales han favorecido esta evolución positiva de la economía vasca, pero el diferencial positivo con respecto a la economía española se debe a su propia estructura y modelo productivo con un mayor peso de la industria y del sector de servicios a las empresas que le ha permitido aprovecharse mejor de la incipiente recuperación del comercio internacional.

El crecimiento de la economía vasca se apoya en una mejora de la demanda interna que registra una aportación menos negativa que en trimestres pasados, y una contribución positiva al PIB de la demanda exterior, donde destaca el fuerte incremento de las exportaciones al extranjero vinculado a la mejora del comercio internacional. En términos de oferta y, correspondiendo a esto último, destaca la recuperación industrial y la del sector servicios, posiblemente influido por el sector de servicios a las empresas.

La crisis ha elevado la tasa de paro media hasta el 9%, similar a la europea. En el último año hemos recuperado 12.000 empleos de los más de 40.000 que se perdieron en los primeros momentos de la crisis. La recuperación que se está produciendo durante este año, ha logrado detener la caída del empleo como lo revelan las últimas encuestas y los datos de la afiliación a la Seguridad Social, pero sólo podrá considerarse como definitivamente afianzada cuando comience a generarse empleo y se tienda a la recuperación de las tasas de paro anteriores a la crisis.

Berreskurapenak zuen erritmoak eraginak jasango ditu, Europako gobernuak zein Espainiako eta EAEko herri-administrazioek Ekonomia eta Finantza Kontseiluaren maiatzeko batzarraren ostean hartu zitzuten austeritate-neurrien eraginak, hain zuzen ere. Neurri horiek, eragile ekonomikoen konfianza berreskuratzeko eta epe ertain eta luzerako hazkundea mantentzeko beharrezkoak izan arren, epe laburrean moteldu egingo dute hazkunde-erritmoa, bai esportazioena eta bai barne eskariarena. Ondorioz, 2010eko datuak, BPGd-ren hazkundeari eta enpleguari dagokienez, oso apalak izango dira. Euskal ekonomiaren hazkundea % 0,2koa izango dela aurreikusi da, eta enplegua -% 0,8 jaitsiko da.

2011. urteari begira, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2010-2011rako egoera makroekonomikoa kalkulatu du (ikusi 1. koadroa), Ekonomia eta Finantza Kontseiluaren maiatzeko batzarraren ostean hartu ziren austeritate-neurriak eta NDFk gure inguru ekonomikoko herrialdeetarako egindako azken aurreikuspenak aplikatuz.

#### 1. koadroa

EAEko 2010-2011ko egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldaketa-tasak

El ritmo con el que se estaba produciendo la recuperación, se verá afectado por las medidas de austeridad que han adoptado, tanto los gobiernos europeos como las administraciones públicas españolas y vascas tras la reunión del ECOFIN de Mayo. Aunque juzgadas necesarias para la recuperación de la confianza de los agentes económicos y la sostenibilidad del crecimiento en el medio y largo plazo, a corto plazo, estas medidas tendrán como efecto ralentizar el ritmo de crecimiento, tanto de las exportaciones como de la demanda interna, por lo que los datos de 2010, tanto en términos de crecimiento del PIB como del empleo serán muy modestos. El crecimiento de la economía vasca se estima que será del 0,2% y el empleo descenderá un -0,8%.

Para 2011 la Dirección de Economía y Planificación ha estimado un escenario macroeconómico 2010-2011 (ver cuadro n. 1) incorporando las citadas medidas de austeridad adoptadas tras el ECOFIN de Mayo y las últimas previsiones del FMI para los países de nuestro entorno económico.

#### Cuadro n. 1

Escenario macroeconómico CAPV 2010-2011

Tasas de variación interanual

	2009	2010	2011
BPGd PIB	(3,8)	0,2	1,4
Azken kontsumoa Consumo final	(2,2)	0,5	1,0
Kontsumo pribatua Consumo privado	(3,7)	0,6	1,3
Kontsumo publikoa Consumo público	3,8	0,2	0,0
Kapital eratze gordina Formación bruta de capital	(15,4)	(5,6)	0,0
Barne eskaria Demanda interna	(5,8)	(0,8)	0,8
Kanpo saldoaren ekarpena Aportación saldo exterior	2,3	1,1	0,7
BPGd deflatoreoa Deflactor PIB	(1,2)	1,6	2,2
Enplegua Empleo	(3,4)	(0,8)	0,4
Langabezia-tasa Tasa de paro	8,1	9,0	8,9

Iturria: Eustat (2009) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Mosteva eta EUSXXI ereduak oinarri hartuta.

Fuente: Eustat (2009) y Dirección de Economía y Planificación a partir de los modelos Mosteva y EUSXXI

Deficit publikoa doitzeo neurriak hartu arren, 2010ean nabarmen hobetu da barne eskaria aurreko urtearekin alderatuz, eta 2011. urtetik aurrera horixe izango da euskal ekonomiaren hazkundearren eragile nagusia. Ondorioz, nabarmen handituko da kontsumo pribatua, kapital eratze gordina egongo da, zenbaki gorriak baztertuz, eta kontsumo publikoa gelditu egingo da, gasto publikoari eusteko neurrien ondorioz. Kanpoko sektorearen ekarpenak positiboa izaten jarraituko du, baina garrantzi txikiagoa izango du. Enpleguaren sorkuntzari dagokionez, 2011n hasiko da, eta apal gainera. Sortutako enplegu horren ondorioz langabezia-tasa txikiagotuko da, eta %8,9koa izango da 2011n. 2009an enplegua mantentzeko egindako ahaleginaren ondoren (lanean egondako bakoitzeko produktititatearen hazkuntza ia nulua izan zela), 2010-2011ko tartean % 1 baino gehiagoko erritmoan haziko da. Berreskuratze-egoera horretan, inflazioa gero eta handiagoa izango da, baina nekez gaindituko du % 2a 2011. urtean.

### 3. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-politika 2010. urtean.

Diru-sarreren eta gasto publikoen arteko alde handiak defizit itzelak ekarri ditu Administrazioetako kontuetan. Eusko Jaurlaritzak oreaktze neurriak hartu behar izan ditu zorra publikoaren metaketa ekiditeko, bere finantzaketa handituko lukeena etorkizuneko gastua baldintzatzatuz.

Lehenengo murrizketa 2009ko uztalean izan zen, baina 2010. urtean aurrera egin du prozesuak. 2010eko aurrekontuak egin zirenean, sendotzea izan den oinarrizko helburua eta, gauzak horrela, ekonomia-egonkortasunaren alorrean Ekonomia eta Ogasun Ministerioarekin lankidetzan aritzeko alde biko harremanen eremuan, 2010-2012an defizita murrizteko bidea hartu zen. Bertan aurreikusitakoaren arabera, 2009ko % 3,8ko defizit errealekik % 2,5era igaro behar zen 2010ean. Horren ondorioz, 36,6 milioi euroa murriztu behar zen gasto arrunta 2009an egindako gasto arruntaren zifra errealekin alderatuta.

Ekonomia eta Finantza Kontseilua, 2010eko maiatzean, Europako hainbat herrialderi eragiten zien zorraren krisiari aurre egiteko neurriak hartzeko batzartu zen. Bada, batzar horren ostean, Espainiak konpromisoa hartu zuen sendotzeko prozesua bizkortzeko eta zuen defizita % 3raino murrizteko 2013. urterako, bai eta konpromiso hori sinesgarri egingo zuten oinarrizko hainbat neurri hartzeko ere. Defizit hori herri-administrazio guztiei dagokiena denez, eta ondorioz autonomietako herri-administrazioak ere bertan daudenez, konpromiso horrek eraginak izan ditu EAEko herri-administrazioan, eta gehiago estutu ditu geure aurrekontuak, "Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010-2012rako berrorekarako ekonomia- eta finantza-planean" islatu den bezala.

A pesar del efecto de las medidas de ajuste del déficit público, ya en 2010 la demanda interna mejora ostensiblemente con respecto al año anterior y a partir de 2011 será el principal motor de crecimiento de la economía vasca, con un aumento significativo del consumo privado y con la formación bruta de capital dejando los números rojos, mientras que el consumo público se estancará por las medidas de contención del gasto público. La aportación del sector exterior seguirá siendo positiva, aunque su importancia irá disminuyendo. La creación de empleo no se producirá hasta 2011 y lo hará modestamente. Este empleo generado irá reduciendo la tasa de paro que se situará en el 8,9% en 2011. Tras el esfuerzo realizado en el mantenimiento del empleo en 2009, donde el crecimiento de la productividad por ocupado fue prácticamente nulo, en 2010-2011 este crecerá a un ritmo medio superior al 1%. En este escenario de recuperación la inflación irá aumentando, pero apenas superará el 2% en el año 2011.

### 3. La política presupuestaria del Gobierno Vasco en el año 2010.

La brecha profunda que se ha abierto entre los ingresos y gastos públicos ha desencadenado grandes déficits en las cuentas de las Administraciones. El Gobierno Vasco ha tenido que adoptar medidas de ajuste para evitar una acumulación de deuda pública que aumente el coste de su financiación y condicione el gasto futuro

El primer recorte se produjo en el mes de julio de 2009, pero el proceso ha continuado a lo largo de 2010. Los Presupuestos de 2010 se diseñaron con el mismo objetivo básico de la consolidación y en ese sentido en el marco de las relaciones bilaterales de colaboración con el Ministerio de Economía y Hacienda en materia de estabilidad presupuestaria se adoptó una senda de reducción del déficit 2010-2012 que preveía pasar de un déficit real del 3,8% en 2009 al 2,5% en 2010. Esto implicaba una primera disminución del gasto corriente de 36,6 millones de euros con respecto a las cifras reales de gasto corriente ejecutado en 2009.

No obstante tras el ECOFIN de Mayo 2010, reunido para adoptar medidas para hacer frente a la crisis de la deuda que afectaba a diversos países europeos, España se comprometió a acelerar su proceso de consolidación y reducir hasta el 3% su déficit para 2013 y adoptar distintas medidas de carácter básico que hicieran creíble ese compromiso. Al ser ese déficit el correspondiente al conjunto de todas las administraciones públicas incluidas por tanto las autonómicas, ese compromiso ha implicado a la Administración pública vasca y ha supuesto una nueva vuelta de tuerca para nuestros presupuestos que se ha plasmado en el "Plan económico-financiero de reequilibrio del País Vasco 2010-2012".

Doikuntza-neurri berriekin 150 milioi euroko murrizketa egin da guztira gastuan, eta horrekin beste % 0,2 murriztu nahi da EAEko herri-administrazioaren defizita eta horri dagokion zorpetze-beharrizana. Honako hauek dira planaren neurriak:

- Soldata-masa % 5 murriztea, uztaletik aurrera. Premiazko neurriei buruzko legearen bitartez antolatua, eta aurrekontuan izango duen eragina 100 milioi euro ingurukoa izango da.
- II. eta IV. kapituluetako gainerakoak 30 milioi eurotan murriztea, sail ezberdinen artean banatuta.

Farmazia-gastuak murriztea, 20 milioi euroko zenbatekoan.

Oro har, etengabeko murrizketek 2010erako %2,6ko baino gutxiagoko aurrekontu gasto arrunta suposatzen dute 2009. urteari dagokion gasto errealaaren aldean. Era berean, 2011erako aurrekuskaitako zorpetze beharrizana murriztea ahalbidetzen dute, Berrorekatze Planean jasota dagoen lez, 1.888 milioietan kokatzen duena eta ez Eusko Legebiltzarra onartutako 2.038 milioietan. 2011rako 1.207,5 milioi euroko zorpetze beharrizana aurreikusten da.

Las nuevas medidas de ajuste suponen en total 150 millones de euros de recorte del gasto con los que se pretende reducir en un 0,2 % adicional el déficit de la administración pública vasca y la correspondiente necesidad de endeudamiento. El plan se concreta en las siguientes medidas:

- Una reducción de la masa salarial de un 5% a contar desde el mes de julio, que se articula a través de una Ley de Medidas Urgentes y cuyo impacto presupuestario es cercano a los 100 millones de euros.
- Reducción del resto de los capítulos II y IV en 30 millones de euros repartidos entre distintos departamentos.
- Reducción de los gastos de farmacia por importe de 20 millones de euros.

En conjunto, los sucesivos recortes suponen para 2010 un gasto corriente presupuestado inferior en un 2,6% al gasto real correspondiente de 2009 y, a su vez, permiten reducir la necesidad de endeudamiento prevista para el 2010, tal y como queda recogido en el Plan de reequilibrio, que lo sitúa en 1.888 millones frente a los 2.038 millones autorizados por el Parlamento Vasco. Para el 2.011 se contempla una necesidad de endeudamiento de 1.207,5 millones de euros.

	2009	2010 Hasierako Aurrekontua / Presupuesto Inicial	2010 Ekaineko azterketa / Revisión junio
Diru-sarrera arruntak Ingresos corrientes	7.405	8.010	8.010
Gastu arruntak Gastos Corrientes	8.601	8.564	8.414
Aurrekontu Aurrezko gordina Ahorro Bruto Presupuestario	(1.196)	(546)	(396)
Kapitalaren Diru-sarrerak Ingresos de Capital	94	249	249
Kapitalaren gastuak Gastos de Capital	1.410	1.535	1.535
Kapitalaren eragiketen saldoa Saldo de Operaciones de Capital	(1.316)	(1.286)	(1.286)
Aurrekontu defizita ez finantzaria Déficit presupuestario no financiero	(2.512)	(1.832)	(1.682)
Finantzaketa beharrizana Necesidad de Financiación (SEC95)	(2.529)	(1.718)	(1.568)
BPGren gaineko defizitaren ehunekoa Porcentaje déficit sobre el PIB	(3,83%)	(2,60%)	(2,37%)

Milioi eurotan emandako balio absolutuak.

Valores absolutos en Millones de euros.

Gastuen alorrean austeritatea ezartzeko ahalegin horiekin batera, diru-sarrera publikoak hobetu egin dira 2010. urtean eta, ondorioz, hitzartutako egonkortasun-konpromisoak bete ahal izango dira. Aurreko krisi-urteetan gertatu denaren alderantzikoa gertatu da 2010. urtean, hau da, gastua eta diru-sarrera gauzatzeko zifra erreala doitzan ari dira, eta hobetu ere egingo dira, aurrekontu-aurreikuspenen arabera.

Estos esfuerzos de austeridad en el gasto se están viendo acompañados por una mejora de los ingresos públicos a lo largo de 2010 lo que permitirá cumplir los compromisos de estabilidad acordados. En contra de lo que ha sucedido en los precedentes años de crisis, durante 2010 las cifras reales de ejecución del gasto y el ingreso se están ajustando e incluso mejoran a las previsiones presupuestarias.

Hitzartutako zergengatikoa bilketa gero eta handiagoa da, berreskuratzeko ekonomiko arinarekin eta diru-sarrerak hobetzeko hartutako neurriak indarrean sartzearekin bat etorrita. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak egin duen 2010erako itxiera-aurreikuspenaren arabera, 11.800 milioi euroko bilketa egingo da, 2009an bildutakoa baino % 9,3 handiagoa. Berreskuratzen hasiko da horrela, presio fiskalak aurreko bi urteetan izan zuen atzeraldi gogorraren ondoren. Itxaron zena baino portaera hobea egon denez, aurrekontuan islatu zirenak baino 297,8 milioi euro gehiagoko diru-sarrerak izango ditu Eusko Jaurlaritzak. Zatirik handiena, 249 milioi euro, jarduera ekonomikoa, berrikuntza eta inbertsioak hobetzeko neurri multzo batera bideratuko da.

Diru-sarreren bilakaera positiboa den bezala, gastu arruntari eusteko neurriek ere espero ziren eraginak izan dituzte, gastuen aurrekontua gauzatzeko zifrek 2010eko iraileko datuen arabera islatu dutenez. Bertan ikusi da urtearen lehenengo hiru hiruhilekoetan gastua ia gelditu egin dela langileria-gastuen kapitulu garrantzitsuenetan eta transferentzia eta diru-sarrera arruntetan.

#### 4. 2011ko aurrekontu orokorrak: Ekonomia- eta aurrekontu-politikaren orientazioak

2011ko aurrekontu orokorrak diseinaturik daude krisitik ateratzen laguntzeko eta hiru helburu nagusi dituztelarik: Epe laburrean sendotze fiskala eta, epe ertainean, ekonomia-lehiakortasuna handitzea ekoizgarritasunaren hobekuntzan oinarriturik, hori guztia Ongizatearen Estatuaren egungo zerbitzu eta prestazionen mailari eutsita. Lehenengo helburua lortzeko ezinbestekoa da gastuaren austerritatea 2009an hasitako ahaleginarekin batera, jarraitu eta zehazten dena 2010-2012 Berrorekatze Planean. Beste helburu biak lortzeko, ekonomia-lehiakortasun, kohesio soziala eta ingurumen jasangarritasuna batzen dituen epe ertaineko estrategia orokorri lagundu behar zaio aurrekontuetatik.

Sendotze fiskala honako honetarako da:

Espainiako Gobernuak eta gure Autonomia Erkidegoak hitzartutako Egonkortasunerako Akordioaren bideari eutsi.

Herrialdearen arrisku-prima murriztea eta ratinga ziurtatzea, kapitalen merkaturako sarbideak konplexua izaten segitzen duen unean. Honek eragin positiboak ditu hazkunde ekonomikoan zeren eta empresa sareari ere eragiten baitio arrisku-primak.

Konfiantzako ekonomia-testuingurua sortzea sektore pribatura ere hedatzen dena.

La recaudación por tributos concertados está aumentando en consonancia con la leve recuperación económica y la entrada en vigor de las medidas adoptadas para mejorar los ingresos. La previsión de cierre para 2010 efectuada por el Consejo Vasco de Finanzas es de una recaudación de 11.800 millones de euros, una cifra un 9,3% superior a la recaudada en 2009. Comienza así la recuperación tras el fuerte retroceso que experimentó la presión fiscal los dos años precedentes. Este mejor comportamiento del esperado supondrá para el Gobierno Vasco unas aportaciones de 297,8 millones de euros más que los presupuestados, que su mayor parte 249 millones de euros, se destinarán a un paquete de medidas extraordinarias para dinamizar la actividad económica, la innovación y las inversiones.

Frente a esta evolución positiva de los ingresos las medidas de contención del gasto corriente también están produciendo sus efectos esperados como lo revelan las cifras de ejecución del presupuesto de gastos a Septiembre 2010 donde se constata el control prácticamente un estancamiento del gasto en los capítulos más importantes de gastos de personal y de transferencias y subvenciones corrientes durante los tres primeros trimestres del año

#### 4. Presupuestos generales de 2011: Orientaciones de política económica y presupuestaria

Los presupuestos generales para 2011 se han diseñado para contribuir a la salida de la crisis con tres objetivos fundamentales: a corto plazo la consolidación fiscal, a medio plazo, el incremento de la competitividad económica basada en la mejora de la productividad y todo ello, garantizando los actuales niveles de servicios y prestaciones del Estado del Bienestar. Para alcanzar el primer objetivo es ineludible la austerioridad en el gasto en línea con el esfuerzo iniciado en 2009 y que se continúa y concreta en el Plan de Reequilibrio 2010-2012. Para los otros dos objetivos, es preciso el apoyo presupuestario a una estrategia global a medio plazo para definir el nuevo modelo de crecimiento basado en la competitividad económica, la cohesión social y la sostenibilidad medioambiental.

La consolidación fiscal es necesaria para:

- Mantener la senda del Pacto de Estabilidad y Crecimiento acordada por el Gobierno de España y por nuestra Comunidad Autónoma.
- Reducir la prima de riesgo del país y asegurar el rating, en un momento donde el acceso a los mercados de capitales sigue siendo complejo. Esto tiene efectos positivos en el crecimiento económico puesto que también el tejido empresarial se ve afectado por estas primas de riesgo.
- Crear un entorno económico de confianza que se traslade al sector privado.

Aurrekontu hauek hazkunde ekonomikoa berreskuratu eta sendotu nahi dute langabezia murritzeko. Enplegua sustatzen duen baino aurrekontu sozialagorik ez dago. Hazi behar dugu enplegua sortzeko, baina ez dugu edozelan egin behar. Hazkundea oinarri sendoetan oinarritu behar da. Oinarria hauek enpresa-lehiakortasuna eta ezagutza dira. Azkenik, hazkundea beharrezkoa da daukagun ongizate estatua jasangarria izan dadin. Hezkuntzak, Osasunak, Justiziak, hiritarren ziurtasunak, pentsioek eta nagusien zaintzak kontsumitzen dituzten baliabideak bakarrik gauzatu daitezke epe luzean haziz.

Estatuko administrazioarekin hitzartutako aurrekontu egonkortasunaren konpromisoak betetzeko sendotze fiskalaren bideak 2011rako BPGren  $-1,3\%$  gehienezko defizita ezartzen du, hau da, 885 bat milioi euro. Zorpetze ahalmen honek, Euskal Finantza Kontseiluak ezarritako zerga bilketaren aurreikuspenekin batera jaurlaritzaren 2011ko aurrekontuen finantzazko ez den gastuaren muga zehazten dute.

Euskal Finantza Kontseiluaren 2011ko bilketaren aurreikuspena 12.500 milioi eurokoa da,  $5,8\%$  gehiago aurreko urtearen aldean. Aurreikuspen honek hainbat faktore hartzen ditu aintzat: Ekonomiaren berpizkundearia, 2011n zehar azkarragoa izango dena; Foru Aldundiek martxan jarritako hainbat neurri arauemaileren eragin positiboa baita iruzur fiskalaren kontrako borrokaren emaitzak ere. Era berean, aintzat hartu dira, nahiz eta oso eragin murritza izango duten, ZKOren barruan hartutako progresibotasun fiskalaren neurriak langabetu eta pentsiodunei laguntzeko, krisiak gehien kaltetu dituen populazio sektoreak 2011ko PFEZean artikulatuko direnak.

Foru Aldundiek 2011ko aurrekontuari egindako ekarpenak 8.672,9 milioi eurokoak dira, 2010ean aurreikusi zen aurrekontua baino  $11,9\%$  gehiago. Horrekin guztiarekin, Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrera ez finantzarioen aurrekontua 9.352,6 milioi eurotan geratzen da, hau da, 2011an  $13,1\%$  haziko dira.

Gastu ez Finantziarioen, homogenitate terminoetan,  $3,8\%$  murritzten dira, baina Enpleguaren Politika Aktiboen eskualdaketa-rekin 10.171 milioi eurotara igotzen dira,  $0,7\%$  gehikuntza suposatzen duelarik. Gastu publikoaren murriketa nabarmena Presako Neurrien Legak ezartzen dituen austerritate irizpideetan eta Irizpide Ekonomikoetan batu ziren aurrekontuak egiteko beste neurri batzuetan gauzatzen da. Irizpide eta neurri horiek honako hauek dira:

Estos presupuestos buscan recuperar y afianzar el crecimiento económico para disminuir el paro. Ningún presupuesto puede ser más social que aquel que fomenta el empleo. Necesitamos crecer para crear empleo, pero no debemos hacerlo de cualquier manera, sino que dicho crecimiento ha de estar basado en cimientos sólidos. Estos cimientos son la competitividad empresarial y el conocimiento. Por último, el crecimiento es necesario para hacer sostenible el estado del bienestar que nos hemos dotado. Los recursos que consumen la educación, la sanidad, la justicia, la seguridad ciudadana, las pensiones, el cuidado de los mayores, sólo pueden abordarse creciendo a largo plazo.

La senda de consolidación fiscal pactada con la administración central para cumplir los compromisos de estabilidad presupuestaria establece un déficit máximo para 2011 del  $-1,3\%$  del PIB, es decir unos 885 millones de euros. Esta capacidad de endeudamiento junto con las previsiones de recaudación establecidas por el Consejo Vasco de Finanzas marcan el techo de gasto no financiero de los presupuestos del gobierno para 2011.

La previsión de recaudación en 2011 del Consejo Vasco de Finanzas alcanza los 12.500 millones de euros, un  $5,8\%$  más que el año anterior. Esta previsión toma en cuenta distintos factores: la reactivación económica que irá adquiriendo un mayor ritmo a lo largo de 2011, el efecto positivo de distintas medidas normativas puestas en marcha por las DDFF así como los resultados de la lucha contra el fraude fiscal, y también se han tomado en consideración, aunque tendrán un efecto muy limitado, las medidas de progresividad fiscal acordadas en el seno del OCT para beneficiar a los parados y pensionistas, los sectores de población más afectados por la crisis, que se articularán en el IRPF de 2011.

Las aportaciones de las Diputaciones Forales al presupuesto 2011 ascienden a 8.672,9 millones de euros, un  $11,9\%$  superior a la presupuestada inicialmente en 2010. Con todo ello, el presupuesto de ingresos no financieros del Gobierno vasco queda establecido en 9.352,6 millones de euros, es decir, crecerán un  $13,1\%$  en 2011.

Los gastos no financieros, en términos homogéneos, se recortan en un  $3,8\%$ , pero con la transferencia de las Políticas Activas de Empleo ascienden a 10.171 millones de euros, lo que supone un incremento del  $0,7\%$ . Este significativo ajuste del gasto público materializa los criterios de austerridad establecidos en la Ley de Medidas Urgentes y otras medidas que ya fueron recogidas en las Directrices Económicas para la elaboración de los presupuestos y que son las siguientes:

- Langileen gastuen murrizketa. Langileen gasto guztiak euren soldatu-masaren %5eko murrizketa jaso dute 2010eko hasierako kredituen aldean. Bestela esanda, izoztuta jarraituko dute 2010eko ekaineko egokitzapen osteko mailan. Operatititateari dagokionez, murrizketa hau aplikatzen zaio Autonomia Erkidegoko Administratziorako edota bere Erakunde Autonomoetarako, Ente eta Sozietate Publikoetarako lan egiten duen langileriari, baita zuzen edo zeharka Eusko Jaurlaritzarako lan egiten duen orori ere.

- Gastu arruntaren murrizketa. 2010eko aurrekontuen aldean, II eta IV kapitulueta gutxieneko %3ko murrizketa izango da Sail bakoitzeko. Era berean, hezkuntza-zentroetako eratorritako diruzaintzako gerakinak erabiltzen hasiko da. Azkenik, diru-lagunza arrunten aurrekontua egiteko, 2006an kontzeptu berberetarako eginiko aurrekontuak gehienez ere erabiltzea gomendatzen da.

- Gizarte-gastua mantentzea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeako Legeak, Familiei Laguntzeko Legeak eta Gizarte Zerbitzuen Legeak aitortutako eskubideek, eskubide sozial garrantzitsuak direnek ez dute murrizketarik izango, baina kontzeptuengatik prestazioen zenbatekoak eta orobat garapenerako lankidetzarako funtsek 2010eko maila berean jarraituko dute.

